

Gure enpresan, baliabide fisikoek, giza baliabideek eta baliabide finantziarioek funtsezko papera betetzen dute, enpresako jarduerak modu eraginkorrean burutzeko. Hortaz, hiru baliabideak kontuan izango ditugu. Hona hemen haien azalpena:

FISIKOAK:

- Espazioari dagokionez, Bilbon kokatutako lokala. Bertan, ekintza ezberdinak burutuko dira. Garrantzitsua da ere, kontuan izanda zer nolako ekintzak martxan jarriko diren, hainbat baldintza bete beharko dituela, hala nola, sukalderako gune bat izatea, komunak... Hau da, gela/gune ezberdinak egotea. [Alquiler de Local en calle Arbidea, Otxarkoaga - Txurdinaga, Bilbao — idealista](#)
- Ekipamenduaren aldetik, deskantsatzeko gela bat (pare bat sofa), altzariak eta armairuak, mahaia, aulkiak, ordenagailuak, proiektoreak, argiztapena... Hauek eskuratzeko, erabiltzen ez ditugun altzariak eramango ditugu, horrela erostea ekidituz. Erosi behar izatekotan, bigarren eskukoak eskuratzen saiatuko ginateke.

GIZA-BALIABIDEAK:

Baliabide fisikoak garrantzitsuak badira ere, gure enpresan, giza baliabideak garrantzitsuenak izango dira, taldeko kide bakoitzak rol zehatz bat izanik.

- Profesional ezberdinek parte-hartuko dute proiektu honetan bertan lan eginez. Aipatzekoa da diziplina anitzeko taldea osatzearen garrantzia. Hori dela eta, 4 gizarteratzaile, Eider, Naomi, Izaro eta Noa egongo gara.
- Izarok administrazioko ezagutzak dituenaz, alderdi burokratikoaz arduratuko da.
- Noak monitoretzako titulua izanda, aisialdiko jarduerak kudeatuko ditu, esku-hartzeak prestatuz.
- Naomik migrazio prozesuen inguruko ezagutzak dituenaz, erraztasuna izango du kultura ezberdinetako parte-hartzaileekin harremanetan jartzeko eta komunikatzeko.
- Eider psikologian aditua izanda, prestatutako esku-hartzeak parte-hartzaile bakoitzaren behar eta nahietara egokituko ditu, arreta pertsonalizatua bermatuz.
- Etorkinekin bat, Ahislama Latinoamerikako Elkarte Hispanoa, A Desalambrar-Ireki Mundua eta Bizkaiko Elikagaien Bankuko profesionelen jakintzetaz baliatuko gara formakuntza saioak aurrera ateratzeko.

- Proposatutako jarduerak taldeko edonork dinamizatuko ditu. Bestalde, gaueko zerbitzuetan taldeko kide guztiak egongo gara.

FINANTZIARIOA:

Gure enpresako diru laguntzak, gobernuaren, erakundeen eta fundazioen diru laguntzetan oinarrituko dira.

- Alde batetik, Bizkaiko Foru Aldundiak eskaintzen duen [Ekintzailatza eta Giza-Inpaktu Funtsa F.C.R. PYME](#) laguntzaz baliatuko gara hasiera faserako edota garapen faserako.
- Lanbidek eskaintzen duen [Ekintza eta mikroenpresak programa finantzatzeko laguntzak](#) erabiliko ditugu.
- Bilboko Udalak ematen duen [Hiritarren elkarteentzako diru-laguntzak 2024](#) eskuratuko dugu.
- Hasieran bakoitzak diru kopuru bat jarri beharko du langile gisa. (1000 euro).